

«Moral bikoitza» da edozein arabiarri tripak jaten dizkiona●

hingtonek bakearen giltza Saddam Husseinek beste inork ez zuela, azpimarratu zuen. James Baker Estatu idazkari amerikarrak bai Iranek eta bai Irakez ere, biek gerra ondorengo eskualde-ordenean «*paper importante bat*» jokatu beharko dutela adierazi zuen, zeina, lehenbizikoei dagokienean, Teheranen xede «*ez oso garbiak*» apaltzeko saio gisa interpreta litekeen.

GERRARA, zorritzarekin, ohitzen hasi gara. Ez gara horripiztatzen, seguru aski ez dakigulako deus zinez gertatzen denaz. Gure populazioak berriz, interbentzioaren eta norbere gobernuak daraman politikaren alde dirateke, lasai asko gobernatzen gaituzten inkesta okertezinek diotenez.

Frantzia «gendarme txiki»aren papera jokatzeko ari bada, eta Espainiak ere gerra honetan bere ahalegintxoak eta bost egiten baditu, orain Ardanza Lehendakariak, bere negupasatik ir-tenda, harritu egin gaitu, Saddam Hussein, nola ez, Hitlerrekin konparatuz, gerra honen erru guztia irakiarri egotziz. Bihoa, anartean, 19 mila milioi pezetako laguntza Europatik Siria terrorista-ohiarentzat, eta ixil gaitzean dagoeneko Irakek Israelen eragin dituenak baino hildako gehiago sortu dituzten Libanoko bonbazketa israeldarrez. «*Moral bikoitza*» bait da edozein arabiarri tripak jaten dizkiona. William Baker, FBIko zuzendari-ordeak aitortu egin du: «*Kilometro askoko lasterketa baten lehen urratsetan gara*». Enfrentamendu luze eta gogor baten hastapenetan.

Pablo Sastre

MUNDUA EZ DA BOROBILA

Hetero-determinazioa

HERRIEK auto-determinazioa behar dute beren burua altxatzeko. Estatuak, aldiz, hetero-determinazioa behar dute zapalduta dauzkaten herriek burua altxa ez dezaten.

Eta, zorritzarekin, herri eta estatu *guztiak* betetzen bide dute erregela hori. Eta «perestroika»-ren Sovietar Batasunak ere bai, Gorbatxovek egun hauetan argi-eta-garbi adierazi duenez: Lituaniaren kasoa, Armeniarena, Estoniarena, Sovietar Federazioak bere osoan erabaki behar omen du... Hetero-determinazio huts-hutsa, beraz.

Eta, zer nahi duzue, horrek Arias Navarro gogorazi dit; alderdiak legez-tzatzerakoan, oroitzen zarete agian, baldintza hau jarri bait zuen: alderdi horrek bere militanteak edo boto-emaleak hamabost (edo hoge) probintzian egotea. Dekretuz, beraz, katalanak eta euskaldunak ahotsik gabe utzi nahi zituen...

Eta badirudi nazio-arazoak azaldu orduko, estatu guztiak oso antzekoak direla. Edo, bestela esateko, nazio-arazoa oso nekez konprenitzen dela naziotik beretik at; eta are bakanago onartzen.

Eta honek Belgikara narama, oroitzen behintzat.

Zeren-eta nik han pasa nituen bost urteetan, besteak beste, trotskista famatu batzuek gurutzatu bait nituen. Degrève eta Mandel, adibidez.

Lehenengoak ez zuen euskal arazoan sinisten (ez euskal arazoan eta ez beste nazio-arazoetan). Berak errepikatzen zuenez, «sozialiste de gauche»-tzat zeukan bere burua (garai hartan Belgikako deputatu trotskista bakarra zen, gaizki ez banago). Eta «marxista-leninista» ofizialak (P.C. eta koak), «socialistes de droite»-tzat zeuzkan.

Baina IV. Internazionalerako intelektual nagusia Mandel zen, urte horietan «*Traité d'Économie Marxiste*» famatu eta preziatua argitaratu berria. Mandelek beste honetara definitzen zuen bere burua: «marxiste orthodoxe». Flandretarra eta judua izanik, bestalde, interes berezia izan zezakeen nazioari buruzko bere eritzia.

Bai Degrève eta bai Mandel, aldeaz aurretik esateko, eta nahiz euskal nazio-arazoa ez ulertu, laguntzaile fin egon ziren urte haietan hara heldu ginen euskaldun erre-fuxiatu guztiakin; eta neure esker ona erakusteko parada hau baliatu nahi dut puntu hori argi-eta-garbi uzteko.

Eta halako batez, euskaldun trotskista erre-fuxiatu batek lagundurik, Mandel eza-gutu nuen Bruselako bere etxean. Eta elkarriketa luzea eskaini zigun.

Eta Mandelek ere gauza bertsua esan zigun (alegia, ezkerrean orduan oso maiz entzuten zen gauza bera): «*Zuek abertzaleak zarete; eta, jakina, konturatu gabe, puztu egiten duzue arazoaren izari hori. Franco hiltzean, ordea, zuen nazio-arazoa, eta katalanena, eta abar, konponduko dira; eta hortxe geldituko da, tinko, klase-arazoa. Burgesia prest dago nazio-alorrean amore emateko; baina klase-interesak salbu geldituko diren ber.*»

Eta ni askotan gogoratu naiz Mandelen igarketa horretaz. Ez dut nik esango Felipe Gonzalez, Pujol eta Ardanzen eskutik iraultza sozialista egin denik... Otoi! Baina egia ote da Estatu espainolean nazio-arazoak konponduta gelditu direnik?

Areago. «Perestroika»-k alderdi burokratiko eta bakarraren problema konpondu duela dirudi (eta ez ziru dien erraza izango zenik). Baina «perestroika» horrek potto egin du nazio-arazoaren aurrean; eta bere altxor guztia galtzen ari da Gorbatxov nazio-arazoaren alorrean.

Hitz batez, ezker klasikoak (ortodoxoak, marxista leninistak, eta abar) uste zuen baino gogorrago eta funtsezkoagoa da nazio-arazoa. Eta hori guk bagenekien; alegia, atzeritar zapalketaren larria zer den ezagutu dugun guztiok bagenekien.

Herriak hor daude (*herriak* diot; ez estatuaren barruko «masak», Sartrek bezala esateko); eta herrien arazoak *auto-determinazioaz* konponduko ez direno, ez «perestroika»-rik, ez «demokrazia»-rik, eta ez debrurik. Hauxe da egia nabarmena.

T X I L L A R D E G I